



BARREN
TOKIKOM



**Lanaren pisua
bizkarrean**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, Implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua
Autran Institutua. Bartzelona.
Etergabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal  Eta twitterren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



NORA KORTABERRIA



“Ez zait gustatzen aurrean ditugun aukera horiek alde egiten uztea”

Kaixo, Nerea! Zer moduz etorri zaizkizu opor egun hauek? Pixka bat erlaxatzeko balio izan dute, ezta? Nire kasuan, lurreratzeko beharrezkoak izan zaizkit. Aurrera eta atzera ibili ostean Elgoibarren bizi naizela ohartzeko. Nora, akordatzan zara gazteagoak ginean zenbat disfrutatzen genuen Sanjoanetan erretzeko kartoi bila? Nola antolatzen ginen koadrilaka, nor bere sua non izango zen pentsatu eta herri guztia goitik behera miatuz kartoi puskarik handiena nork eramango lehian... Eta nola lapurtzen genion elkarri gure altxorrik preziatuena pantaila handiko telebista haren kaxa izango balitz moduan? Edo nola prestatzen genituen irrikaz ikasturte hartako gizarteko liburuak, suak irentsi zitizan?

Aurrean ditugun aukera guztiez baliatzeko esaten digute, gazteak gara eta! Zenbat aldiz entzun dugu hori? Aukerak eta aukerak ei ditugu gaztetan, guztia dugu aurrean eta guztia dago gure esku. Egia esan, ez zait aukera horiek alde egiten uztea gustatzen. Batzuetan gauza gehiegi batera egiten ari naizela entzun izan dut. Baina ez al da hori hobea, ezer egin gabe geratzea baino?

Bi hilabetetan lau herrialde eta bi kontinente zapaltzeko aukera izan dut, eta hori ere neurea egin dut. Beste milaka aukeren bidea

ireki didan atea izan da. Gutxien espero nuen unean sortu zaidana. Esateko modu ustel bat besterik ez dela pentsa dezakegu, bai, hori ere gure esku dago. Kontua da, ezustekoei ongi etorria eman behar diegula, geureak egin eta gu haienak egin. Izan ere, kasualitatea izan daiteke eta kasualitatea dela pentsa dezakegu. Atzo bertan autoan sartu eta azkenekoz autotik jaitsi nintzenen entzun nuen kantu bera irratan entzutea kasualitatea izan daitekeen bezala. Eta hor geratu zitzaidan ergel aurpegia. Baina, tira, patuaren misterioa alde batera utzita, paraden ezjakintasunean sinestea nahiago dut. Azken batean, garenak gara une bakoitzean, baina izatea aldatzen digu zerbaitek. Eta ez da gazteon kontua, sorpresak edonork izan ditzake, edo edonork aurkitu ditzake, baina aurkitzeko bilatu egin behar dira.

Beraz, zortea lagun ez dugula pentsatu beharrean, aukera txiki bat hartu, handiagoa bilatu eta ziur aurkituko dugula. Eta onena, guztia ez dela hor amaitzen, hau ere ziklo bat dela. Ezaguna egiten al zaizu, Nerea? Oker ez banago, zu ere aukerak alde egiten uztea gustatzen ez zaion horietako bat zara eta. Dena dela, buelta gehiegi eman gabe, ezusteak, gaztetasunak baino gehiago, gazte sentitzeak ere sortu ditzake. *Gaztiak gera barren!*



NEREA GURRUTXAGA



“Aukerak bilatu egiten dira, baina batzuei ukatu egiten zaizkie”

Kaixo, Nora! Arrazoia duzu bai, aukerak bilatu egin behar dira, eta horrela denean, zortea ere laguntzen du batzuetan! Nork esango lidake niri, Joko Paraolimpikoen inguruan informatzera joango nintzenik, Rio de Janeiro-ra? Gazte aukera eta Basque Team-ek antolatutako lehiaketa batean parte hartzearen ondorioz, orain esperientzia izugarri hori bizitzeko aukera daukat.

Gazteak gara, eta zuk esan bezala maiz entzun ohi dugu orain dela momentua, aprobetxatu beharra daukagula eta abar. Hala ere, askotan ikasketek, lanak eta beste betebeharrak batzuek ez digute benetan nahi duguna egiten uzten.

Sortzen zaizkidan paradei baiezkoa emateko erabakia hartu nuen orain dela pare bat urte. Nire burua behartzen dut gehiegi ez pentsatzera ondorioetan, eta arriskatzera. Egia esan, ez naiz

damutu oraindik, egin ditudan gauza guztietatik zerbait ikasi baitut. Batez ere nire ikasketekin erlazioatuta dagoenean, ondo baitakit ikus-entzunezkoen arloa ez dagoela bere momenturik onenean eta horregatik aurkezten zaizkidan aukera guztiak aprobetxatu behar ditudala.

Dudarik gabe izan dudana esperientzia aberasgarriena Txilera ikastera joatea izan da, eta ezin dut ahaztu jende askok ez duela izan horrelako aukerarik. Are gehiago, guretat ohikoa dena luxua da askorentzat. Errefuxiatuak ditut buruan egun hauetan. Haien zat Europa da aukera, gure herrialdeek finantzaturako gerra atzean uzteko aukera, bizitza duin bat izatekoa. Aukerak bilatu egiten dira, bai, baina batzuei ukatu egiten zaie horretarako eskubidea. Hori horrela izan ez dadin, gazteok ere badugu zeregina, gure aukerak baldintzatuko dute eta euren etorkizuna.

MIKEL ARTOLA

Ekonomialaria



Lantegiak jarri eta kentzea

dela ahaztu gabe.

Kanpotik jasotako aldagai batek enpresaren eraginkortasun ahalmena nabarmen murrizten duenean

“Erabaki guneen gertutasunak funtsezko garrantzia dauka. Baina hortik harago, hornikuntza katearen sendotasunean dago koska”

lehiakortasun eredu hauskorren adierazgarria izan ohi da. Eta energiaren kostu altua hori da hain zuzen, kasu honetan urruneko eragileen bizkar utzi ezin daitzekoen aitzakiarik gabe.

Multinazionalak aldiz, globalizazioaren ikur dira. Nazioartekotzea eta taimainaren arteko norgehiagokan, mugarri boteretsua. Merkatu esparru txikiak ere behar dituzten erraldoi aseezinak. Hazkundearen grina hobekuntzaren eta aurrerapenaren akuilu den neurrian, hazi-beharrak noraezaren hazia ote da?

Kanpoko enpresen arrantzan, epe luzerako plangintzarik eta bermerik ezean, merkealdi itxurako gobernuen arteko lasterketak fruitu oparorik ez dakar, garesti ureztatutako lur idorrik ez bada, enpresen etekin soila.

Erabaki guneen gertutasunak funtsezko garrantzia dauka. Baina hortik harago, lantegiak jarri eta kentzea zenbaki-azterketa hutsa izan ez dadin, hornikuntza katearen sendotasunean dago koska, ingurune lehiakorra osatzean, pertsona trebatuen bilgunean. Ala Lodzeko langileak Lensekoak baino jatorra-koak izateagatik lehenesten dituzte.

Altzairugintza sektorea egungo garai nahasien paradigma da. Multinazionalen pisua, energiaren kostu altua eta Txinako bultzada bezalako osagai gaiztoekin ezin etorkizunari bide itxaropentsurik eman.

Txinako produktuen erauntsiak eraikin sonatuenak ere eraitsi ditzakela eta, ez da zalapartarik falta. Nazioarteko legegia orekaz adostu eta betearaztea ezinbestekoa litzateke; historia, mendebaldeko herrien eskutik, arauhaustez eta merkatal-indarkeriaz eraiki



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
 Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Eduarne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
 by 2013



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► DENON ARDURA

Gure herri eta auzoetan bizitza kalitate hobetzeko autoen presentzia murriztu beharra dugu. Denon ardura da, gidariena eta erakundeena. Konturatzen ari naiz agintariak, oro har, neurriak hartzen hasi direla herri guneetan automobilen presentzia murrizteko. Bazen ordua! Elgoibarren, esaterako, Maalako zubia ixten hasi dira asteburuetan eta horrek bide onean doan ahalegin bat erakusten du, nahiz eta nire ustez oraindik ez den formularik onena aurkitu, Santa Ana kalean, Pedro Muguruzan edota Gabriel Kurutzelaegin autoen trafikoa areagotu egin baita horrela. Probak behar dira eta hutsegiteetatik ikasi. Denborarekin eta guztion borondatearekin lortuko dugu.

Gai honetan garrantzitsua da erakundeek, ikastetxeek eta komunikabideek egin dezaketen sentsibilizazio lana.

Oso garraio publiko zerbitzu ona dugu, baina oraindik hobea behar dugu. Inbertsio gehiago horra bideratu beharko lirake. Aste Santuan Donos-

tiara joan naiz eta autobusak eta trenak jendez gainezka izan dira. Bada hor ere zer hobetu.

Oinez zein bizikletaz ibiltzeko kultura ere sustatu beharko genuke. Eibarrekin eta Soralezeko bidegorriarekin lotu beharra du Elgoibarrek. Eta Mendarorekin, jakina.

A.O.I.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienek eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datorren eskutitzik argitaratuko.

SAMSUNG TELEBISTA

LED SAMSUNG 32"
UE32J4100AW



259 €

NESPRESSO ESSENZA KAFE MAKINA

20 € DOAN KAFE KAPSULETAN



49 €

AEG L73486FL GARBIGAILUA

A+++
8 KG
1400 R.P.M.



449 €

Eraberritu zaitez !

MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Produktuak agortu arteko promozioa. Prezioa denda.

Ume jaioberrien gurasoei 'Hazi Hezi' aldizkaria doan banatuko die Elgoibarko Udalak

Hazi Hezi aldizkariaren erreportaje sorta baten bilduma berezia, eta urtebeteko harpidetza doan, jasoko dute haur jaioberrien Gurasoek Elgoibarren.

Elgoibarko Udalak laguntza eskaini nahi die etxeko heziketa lanetan guraso izan berriei. Gurasoei zuzenduriko *Hazi Hezi* aldizkariaren erreportaje-sorta baten bilduma jasoko dute haur jaioberrien gurasoek. Haurra Udalaren Arreta bulegoan erroldatzerakoan jasoko dute honi buruzko informazioa gurasoek, eta ondoren, Kultur Etxean, Euskara Sailean, eskuratu ahal izango dute aldizkari berezi hori, bulego orduetan (07:30-15:00). Gainera, urtebeteko harpidetza (4 zenbaki) doan eskuratzeko aukera ere izango dute.

Etxeko komunitateari zuzenduriko heziketa aldizkaria da *Hazi Hezi*. Gurasoei, aitita-amamei, familiei edo hezitzaileei, haurren heziketan eta garapenean laguntzeko tresna izateko bokazioz jaioa.



Elgoibarko Udalak gogora ekarri nahi izan du urteak daramatzala haurra izan berri duten gurasoentzako transmisio kanpaina antolatzen. Kanpaina horren baitan, lau euskarri erabiliko ditu Udalak aurten:

- **Gutuna:** haur jaioberriarengatik zorionak emateko eta euskara erabiltzeko edota ikasteko aholkua emateko. Udalak, bide batez, euskara ikasteko diru-laguntzak ematen dituela gogorarazten die gurasoei, 0-12 urte bitarteko hau-

rrak dituzten gurasoek matrikularen erdia ordaintzen baitute euskaltegietan.

- **Biorrikoa:** gurasoen hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, hiru mezu prestatu dira: guraso euskaldunentzat, guraso erdaldunentzat; eta guraso mistoentzat.

- **Kanta-jolasen DVDa:** Hazi Hezi aldizkariaren bilduma berezia, eta urtebeteko harpidetza doan.

- **Hazi Hezi** aldizkariaren bilduma berezia eta urteko harpidetza.

'Amnistiaren norabidean, preso eta iheslariak etxera' hitzaldia eskainiko dute Sortuk eta Iratzar Fundazioak

Datorren barixakuan, apirilak 8, hitzaldia eskainiko dute Iñigo Akaiturri eta Antton Lopez preso ohiek Elgoibarko Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. *Amnistiaren norabidean preso eta iheslariak etxera* izenburua izango du hitzaldia eta Sortuk eta Iratzar Fundazioak antolatu dute. Martxoaren 13an preso izandako talde batek aurkeztutako *Abian da bidea ekimena* azaltzera etorriko dira. Ekimenaren manifestuak 1.400 bat preso eta iheslari ohiren atxikimendua jaso du. Tartean, Elgoibarko Julen Agirre, Juli Arregi, Jose Antonio Arribillaga, Sebas Elizburu, Inazio Iriondo, Gemma Jaio, Jon Iñaki Jaio, Rosa Martinez, Juan Mari Mendizabal, Iñaki Odriozola, Arnaldo Otegi eta Joseba Zinkunegi daude.

Manifestu hau sinatu dutenek Euskal Preso Politikoen Kolektiboari zein Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboari sostengua helarazi diete eta presoek kolektiboaren erabakiak errespetatzen dituzte. "Salbuespenezko legedia astindu beharra dago, sakabanaketa bukatu. Gehiengo sozial zabalak eraginkortu beharko du irekitako eskenatoki berria, ustel ez dadin. Alde anitzetako konpromisoak behar ditu honek guztiak. Guk geurea aldarrikatu nahi dugu lehenik eta behin. Euskal preso politikoen Euskal Herrirratze eta etxeratzearen aldeko lanean murgiltzera gatoz", dio manifestuak. Apirilaren 17rako manifestazioa antolatu dute Bilbon sakabanaketaaren aurka eta presoek etxeratzearen alde.




Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Ur txorrota N-634 errepidetik azpiko bide-txora: "Urazandi auzotik lur azpiko pasabidea zeharkatu eta erreka aldameneko bidetxoan barrena euri egunetan joanez gero, errepidetik ura jausten da. Ubidea egon bada goen arren ez dago bide guztian eta puntu batean errepidetik datorren ur txorrota batek horman jo eta errebotatu egiten du. Hodiren batekin beharbada konponduko litzateke. Bestela putzua sortu eta oinezkoak busti egiten dira". Udalean ez omen dute horren berri, baina erreparatuko diote ea konpondu daitekeen ikusteko.



Txakur kakak Gabriel Kurutzelaegin: "Gabriel Kurutzelaegi kaleko bizilaguna naiz eta sarritan txakur kakak aurkitzen ditut batik bat atzeko aldeko pasealekuan. Batzuetan, gainera, oharkabean zapaltzeko arriskua ere izaten da. Beraz, txakur jabeek eskatu nahi diet txakurrak zaintzen dituzten bezala beraien kakak non egiten dituzten ere zaindu dezatela eta kaka eginez gero jaso eta leku hura garbitu dezatela. Izan ere, gure kalea ez da kakalekua eta ahalik eta txukunen mantendu behar dugu denon artean, batzuetan beste txakur jabe batzuek batu behar izaten baitituzte kaka horiek".



Aulkiak zuhaitz artean Santa Klaran: "Martxoaren 20an, San Pedrora bidean errepidetik abiatu eta Santa Klaran, ezkerretara dauden zuhaitzen artean ikuskizun honekin egin nuen topo. Hondatutako aulkiak zeuden botata zuhaitzen azpiko aldean batzuk eta adarretan trabatuta besteak. Gezurra dirudi oraindik horrelako gauzak egiten dituzten 'pertsanak' egotea".



San Rokera joateko eskailera mekanikoak hondatuta: "Errotaberri plazatik San Rokera doan eskailera mekanikoa erabiltzen dut eta azken asteotan geldirik dago konponketak direla-eta. Hain denbora luzea izanik, aberria handia izango dela uste dut. Ez da horrelako bat gertatzen den lehen aldia, beraz, matxurak saihesteko eta konponketetan dirua aurrezteko proposatzen dut eskailera igogailu batekin ordezkatzeko edo estaltzeko". Udalaren arabera, matxura handia izan da, baina enpresa egingo da konponketa gastuen kargu. Hala ere, ezin dutela epea zehaztu euriak ere mugatu egiten dituelako konponketak. Bestalde, bizilagunaren proposamena ere aztertuko dutela azaldu du.

“Perurenari agian irabaziko nioke bosgarrenera bonbonak igotzen”

▶ JUAN CARLOS GARCIA VIZOSO BUTANO-BANATZAILEA

Portaletako tinbre guztiak jo eta “butano!” oihu egiten zuen lehen, orain, ordea, asko jaitsi dira butano-bonbona salmentak eta tinbre jakinak jotzen ditu Juan Carlos Garcia Vizoso butano banatzaile elgoibartarrak. Butanoa erabili ez arren, askok ezagutzen dute banatzailea, orain bezalaxe, beraiek umeak zirela eta baten baino gehiagoren etxera eramaten baitzuen bonbona. Bizkarrean hartu eta ateraino, igogailuak lana erraztu arren, eguneroko zereginaren pisua bizkar gainean eraman ohi du. Zama horri buruz hitz egin dugu bonbonak etxez etxe banatzen ari zen bitartean.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ Nolatan hasi zinen butano-banatzaille lanetan?

Mekanikan ari nintzela amak ikusi zuen ikasteko ez nuela balio. Aurreko butaneroa ezagutzen zuenez galdetu zion ea lanerako norbait behar al zuen. Probatzeko hasi nintzen eta gaur egun arte. Lehen lan eguna bukatu eta butaneroak galdetu zidan hurrengo egunean joango al nintzen, baietz esan nion bizirik banangoen behintzat. Izan ere hasieran gorputza ez dago ohituta. 17 urterekin hasi nintzen, baina 1985ean hartu nuen arduradun postua eta ordutik ez dut lan hau laga.

♦ Butaneroaren ezaugarri nagusiak indarra, trebezia eta jendetasuna dira esan ohi da. Betetzen al dituzu?

Hasieran indarra baneukan, baina 17 urterekin lehen aldian asko kostatu zizaidan. Trebezia denborarekin hartzen da eta jendearekin tratulan lasaia naiz, batzuetan onetik ateratzen nauten arren.



◆ Zer da butano-banatazailer lanetik zailena?

Batzuetan jendeak ez gaitu ulertzen. Esaterako, baten batek bonbona ordainduta utzi eta beste bati tinbrea joz gero aterik ez digute zabaltzen, besteari jotzeko esaten digute; ez dute ulertzen berariei deitu badiet besteek zabaldu ez didatelako izan dela. Elgoibarren udaltzainekin ez dut arazorik zamalanetarako. Ermuan izaten ditut batzuetan.

◆ Nolako bezeroak daukazue?

Adin batetik gorako jendeak urteetan hartu izan digu butanoa eta batzuentzat ia etxeokak gara. Gazteek batzuetan esaten digute presaka dabiltzala... baina nik ezin dut azkarrago joan. Lehen batzuek propinak ematen zizkiguten eta Gabonetan aginaldoa ere bai, orain propina gutxiago jasotzen dugu eta beste batzuek eskerrak ere ez dizkigute ematen.

◆ Non egiten duzu banaketa?

Elgoibarren, Mendaron, Altzolan eta Ermuan. Berrizen eta Zaldibarren ere banatu izan dut, baina batzuetan ez nintzen iristen, eta kendu egin dizkidate. Oporretan banatazailerok gure artean egiten dugu trukea eta ibili izan naiz Soraluze eta Bergaran ere. Gogoan dut Soraluze nahiko zaila dela, baina badira 10 urte ez naizela han ibili eta badakit aldatuta dagoela.

◆ Zuek erabakitzen al duzue non banatu bonbonak?

Repsolek banaketa enpresa bat du eta hark banatazailerak bilatzen ditu, soldapekoak edo autonomoak. 1985ean Azitain enpresarekin hasi nintzen, baina gero salmentak jaitzi egin ziren eta hark saldu egin zion orain gure esparrua daukan enpresari. Honek esaten digu non banatu eta ni Elgoibarren hainbeste urtean ari naizenez hau nire *feudoa* dela esan genezake. Gainontzekoak edozein momentutan eman zein kendu diezazkidak, eta Elgoibar ere kontratua berritu ezean akabo, ez dut uste baina.

◆ Kalkulatuta al daukazu gutxi gorabehera zenbat bonbona banatzen dituzun egunean?

Aldakorra da udan eta neguan, es-

parruen arabera... Neguan, temperatura jaitsierarekin, ia bikoitza saltzen da. 210 bonbonako kamioi bat ekartzen dut eta bigarren egunerako gastatzen zaizkit, udan, aldiz, baliteke aste osoa lrautea. Esaterako, kalkulek hutsegina ezean eguraldi hotzeko egun batean 100 bonbona inguru izaten dira Urazandin, Erretxindin, San Roken, Sigman eta Altzolan. Orain, bonbona gutxi banatzeko ibilbide luzea egin behar da.

“Bonbonekin astakeriarik ez dut egiten. Hau nire lana da, ez dut egiten gimnasia joan beharrean giharrak lantzeko”

Ni hasi nintzenean hiru banatazailer ginen Elgoibarren eta nik herriko laurden batean baino ez nuen banatzen eta orduan, Erretxindin eta San Roken (hainbat etxe oraindik eraiki gabe zeudenean) baziren 300-350 bonbona banatzen genituen egunak. Orain, berriz, gune berean 20-30, portal bakoitzean bi edo hiru. Krisia ere igarri dugu. Hilaren bukaeran, esaterako, etxe batean ezezkoa esaten digute eta hurrengo astean bi edo hiru bonbona eskatu, eta jakinekoea da aste bakarrean ez dituztela gastatu.

◆ Ateraino eramaten dituzu?

Bai. Tinbrea jotzen dut, izan ere, buruz dakit portal bakoitzean non hartzen duten. Batzuei atean begiratzen diet, adostuta daukagulako bertan lagaz gero zaharra hartu eta berria lagatzea eta gero ordaintzea; ordaindu ezean ez diot berriz lagatzen. Baten batek esan izan digu berak igoko duela, baina gainontzean etxetik etxe banatzen dugu.

◆ Igogailuek lana arindu dute, ezta?

Bai, noski. Baina badira oraindik eskaileretan gora oinez igo beharreko tokiak. Sigman, San Frantzisko, Errosario eta San Bartolome kaleetan. Denak egun berean ez tokatzeko txandatu egiten ditut gogorrakoak baitira. Lehen Santa Ana kalea zailenetakoa zen, baina igogailuak jarri dituzte; orain uste dut bi portal baino ez daudela igogailurik gabe. Zahar zaharrak diren kaleek berdin jarraitzen dute, baina ohituta gaude. Hala ere, badago eraikinen bat goian trabatuz gero portaleraino jausteko moduko eskailerak dauzkana oso zuzenak direlako. Eskailerak garbitu berrikan labaintzea ere gertatu izan zait noizbait, baina istripu larririk ez dut izan.

◆ Bizkarra zaintzeko egiten al duzu hori?

Ez, ez dut bereziki zaintzen. Dena dela astakeriarik ere ez dut egiten. Esaterako, nik bi bonbona igo ditzaket bosgarren solairura eskaileretatik segidan, baina denbora guztian ezin naiz horrela ibili min hartu dezaket-eta. Beraz, niretzat tartekatzea da onena. Batzuetan bi aldiz ez igotzearen bigarren pisura batekin igotzen naiz, beste bat jaitsi, hurrengo bigarrenetik laugarrenera igo...

◆ Harrijasotzailerak-eta ikusten dituzunean, zer pentsatzen duzu?

Mendaron ikusi nuen apustu bat egin zutela mendira bonbona bizkarrean igotzen eta norbaitek brometan galdetu zidan ea ez nintzatekeen apuntatuko horrelako bat egitera. Nik horrelako astakeriarik ezta pentsatu ere. Hau nire lana da, ez dut egiten gimnasia joan beharrean giharrak lantzeko.

◆ Jendeak ere esaten al dizu zure lana gogorra dela?

Adinekoek galdetzen didate zenbat pisatzen duen bonbona batek (25 kilo) –badira 85 kilo ingurukoak tabernetarako-eta. Horiek karroan edo bueltaka eramane behar dira–, zenbat banatzen ditudan (100-200), ea badakidan horiek zenbat kilo diren guztira... Ez dut jakingo ba hainbeste urteren ondoren! Egunean 4.000 kilo izan daitezke. Nik ez dut uste harrijasotzailerak bezala ha-

rriak altxatuko nituzkeenik, baina Perurenarekin bosgarren solairu batera bonbonak igotzen lehiatuz gero, beharbada irabaziko nioke. Harria altxatzeko indarra bai, baina eskaileretan gora eta behera ibiltzeko hainbeste erresistentzia ez dakit edukiko lukeen.

♦ **Bonbonak bizkarrean gora, baina salmenten jaitsiera igarri al duzue?**

Bitrozeramikarekin hasi zen dena. Jende gehienak butanozkoa baino sukalde elektrikoa du. Mikrouhin labeek ere eragin zigute kaltea, aurrez prestatutako janariak han berotzen dituzte eta gazteek lapikoko gutxi jaten dute.

Jendeak dio gas naturala gure aurkari handia dela, baina nik nahiago dut butano bonbona izatea etxean. Izan ere, elektrizitatea moztuz gero berogailurik gabe, janaria berotu ezinda... gelditzen dira asko. Bonbona izanez gero harekin lan egin daiteke, gerta daiteke butanorik gabe gelditzea ere, baina... Lehengoan elektrizitate mozketa bat izan zen eta bitrozeramika, mikrouhin labe eta berogailu gabe gelditu zen jende asko, butano bonbona zutenak ez.

♦ **Hainbeste pisu eta lanek merezi al du gainbehera doan lan baterako?**

Ez. Guri ehuneko kopuru bat ematen digute saltzen dugun bonbona bakoi-

tzeko, baina guk kamioia, aseguru... jarri behar ditugu. Orain dela 15-20 urte bai. Ni elgoibartarra naiz eta biltegia San Antolinen zegoen, beraz, bi kilometro baino ez ziren. Orduan erosi nuen kamioiak 15 bat urte zituen, eta 40.000 kilometro ere egin gabe. Zaharraren zaharrez hondatzen zitzaizkidan gauzak, ez erabilerarengatik. Orain, ordea, ba-

“Mikrouhin labeek ere eragin digute kaltea, aurrez prestatutako janariak han berotzen baitituzte”

naketa enpresak biltegia Zumarragan dauka, beraz, gastua handiagoa da bai kamioian bai gasleoan. Noizbait pentsatu izan dut lagatzea, baina jarraitzen dut, besterik ez daukat eta. Hala ere ez dakit noiz arte jarraituko dudana. Baina nik ez dut ordezeko inor utziko, banaketa

enpresak aurkitu beharko luke. Izan dut laguntzaile bat edo beste eta beti eza-gunak. Izan ere, bonbonak gehien balio zuenean 17,50 euroan egon zen eta 12,46an dago orain. Diru asko mugitzen da esku artean eta edozein ezin dartsu lanean. Bat kobratu ez eta kontuak salmentekin bat ez badatoz orduan datoz arazoak. Askok egun bat lan egin eta laga egiten dute. Gainera ezin zaie asko ordaindu ze bestela ez nuke niretzat izango eta norbait ekarri gero ni baino gehiago banatuko duen norbait izatea nahi nuke.

♦ **Ez dago etxean zure lanari segikodionik?**

Ez. Nik neuk ere ez nuke nahi alabek honetan jarraitzerik. Lana bera ere gainbehera doa-eta. Zakurrak egunero laguntzen dit eta aita ere zenbaitetan. Gainontzean familiakoek ez dute ezer jakin nahi. Alabei ez zaie gustatzen entzutea “zu butaneroaren alaba zara”, dauden esamesengatik. Horiek mitoak diren arren, oraindik entzuten ditugu behin eta berriz eta jadanik aurre ere ez diegu egiten. Nik esaten diet lanbide bat gehiago dela besteen artean, lagunak pintorearen, iturginaren edo irakaslearen seme-alabak direla, zer dira besteak butaneroak baino gehiago ala?



▶ Haurrentzako eskaintza oparoa ekarriko dute Atxutxiamaikak eta Ludotekak udako oporraldirako

Udaberriko oporraldiaren ostean, udako oporraldiaren esperoan daude asko. Itxaronaldia luze egin dakieke, akaso, baina espero baino lehen etorriko da. Atxutxiamaikak eta Ludoteka, esate baterako, udaldiko eskaintza prestatzen ari dira, eta astelehenean ekingo diote izenemateari. Hurrengo lerroetan jaso ditugu eskaintzaren inguruko xehetasunak. Aukera zabala da: Haur Hezkuntzako bigarren mailatik hasita, Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arte.

Asteleheneetik aurrera izena eman ahal izango da Atxutxiamaikak eta Udal Ludotekak antolatutako udaldiko eskaintzan. Izenematea apirilaren 18an amaituko da. Elgoibarko Izarra elkartearen edo Ludotekaren eman ahal izango da izena, edo bestela elgoibarkoizarra.eus webgunean sartuta. Plazak mugatuak izango dira.

2016 honetako eskaintza oparoa izango da, HH2tik LH6ra bitarteko umeentzako aukera zabala prestatu baitute.

Udalak diruz lagunduko du eskaintza. Atxutxiamaikak eta Udal Ludotekak zenbait deskontu aplikatuko dituzte. DSBL (AGI), DBE (RGI) eta GLL (AES) jasotzen duten familiek %70eko deskontua izango dute. Familia ugariak, berriz, %30ekoa. Bigarren anai-arrebak %30eko deskontua izango du.

Apariketaren (HH2-HH4)

Txikientzako bi txanda egongo dira. Ekainaren 27tik uztailaren 8ra lehenengoa eta uztailaren 11tik 22ra bigarrena. Txanda bakoitzaren prezioa 56 eurokoa da (50 eurokoa ludotekako edo Elgoibarko Izarrako bazkideen kasuan). Umeak bi txandetara bidalitzeko gero, 101 eurokoa izango da (91 euro bazkideen kasuan).

Egitasmoaren ordutegia 09:00etatik 13:00etara bitartekoa izango bada ere, 07:30etik aurrera Goiz Txoko zerbitzua



Udako eskaintzan izena emateko epea apirilaren 4tik 18ra bitartekoa izango da.

eskainiko dute. Txandaren prezioa 69 eurokoa izango da (62 euro bazkideen kasuan) eta bi txandetara joatearren 101 euro ordainduko dira (91 euro bazkideek).

Firin Faran (HH5-LH1)

Kasu honetan ere ekainaren 27tik uztailaren 8ra izango da lehen txanda eta bigarrena uztailaren 1tik 22ra.

Txanden prezioak 69 eurokoak dira (62 bazkideen kasuan). Bi txandetara joanez gero, prezioa 125 eurokoa izango da (112 euro bazkideek).

Apariketako ordutegi bera izango du Firin Faran egitasmoak, baina eguenetan egun osoko irteera izango dute, eta umeak 18:00etan itzuliko dira. Hemen ere, goiz txoko zerbitzua egongo da.

Abixadan (LH2-LH3)

Txanden egutegia eta ordutegia aurreko bien berbera izango da. Eguenetan egun osoko irteera izango dute 18:00ak arte, eta, horrez gain, txandako azken bi gauak kanpoan emago dituzte.

Txanda bakoitzaren prezioa 89 eurokoa izango da (80 euro bazkideek) eta bi txandak hartuz gero 161 eurokoa (145 bazkideek).

Aldenik-Alden (LH3-LH6)

Nagusienek Aldenik-Aldenen eskaintza zabalaz gozatu ahal izango dute. Alde batetik, astekako eskaintzan arratsalde pasak (martitzenetan), egun-pasak (eguenetan), iluntze-pasak (barixakuetan) izango dira. Lehen astea ekainaren 28tik 1era izango da. Bigarrena, uztailaren 5etik 8ra, eta hirugarrena uztailaren 12tik 15era. Aste bakoitzaren prezioa 22 eurokoa izango da (20 euro bazkideen kasuan).

Beste alde batetik, bi egonaldi iragarri dituzte Aldenik-Alden egitasmoan. Zuhartzako irlara izango da bat (ekainaren 24tik 26ra) eta Bizkaiko kostaldera bigarrena (uztailaren 20tik 22ra). Egonaldi bakoitzaren prezioa 48 eurokoa izango da (43 euro bazkideek).

Astekako eskaintza bat baino gehiago eta egonaldiren bat hartzen dutenentzako deskontu sorta egongo dela iragarri dute.

“Bruselako aireportu ondoan izanda, txarrenerako prest geunden ospitalean”

► LUCIA ALVAREZ ERIZAIN BURUA BRUSELAKO OSPITALE BATEAN

Lucia Alvarez elgoibartarra erizaina da, eta 22 urtetik gora daramatza Bruselan. Aireportutik bost kilometrora, Saint Luc ospitaleko bulego nagusian kalitatea kudeatzeaz arduratzen da. Martxoaren 22ko atentatuak ospitalean zelan bizi izan zituen azaldu dio **BARREN** astekariari. Bere lana ez da zaurituak hartzea, baina bai ospitalea ondo antolatzea kaltetutakoak modu egokian hartzeko. Tentsio eta zalantza une horietan, 25 zauritu hartu zituzten ospitalean.

- OIER NARBAIZA-



◆ Nolakoak izan dira egun hauek zuen ospitalean?

Lehenago, Parisko atentatuak izan zirenean, alerta egoera 4. mailara igo zen, eta Brusela bera gelditu egin zen, hemen atentatu bat espero zelako. Eskola guztiak itxi zituzten, ez zen garraio publikorik, eta oso zaila izan zen jarduera normal bat izatea. Bestalde, larrialdiko arreta plana ezarria dugu, ospitaleetako zerbitzu guztiak koordinatzeko edozein larrialdiren aurrean. Orain gertatu dena oso gogorra izan da. 08:10ean jakin genuen aireportuan leherketa bat izan zela. Bost kilometrora dago gure ospitalea, eta hasierako informazioak zalantzaz beteta etorri ziren. Albisteak smartphone bidez iritsi zitzaizkigun. Berehala esan ziguten atentatu terroristar bat gertatu zela, biktima asko zeudela, eta berehala jarri zen martxan plana.

◆ Era honetako egoera batean zelakoa da koordinazioa beste ospitaleekin?

Koordinazio zentrotik mobilizatzen dituzte ospitaleak. Biktimen lekualdaketa ere arduratzen dira. Aireportu ondoan, gu txarrenerako prest geunden: zauritu asko

hartzeko, hildakoen gorpuak ere... Lehen zaurituak, erredurak zituztenez, ospitale militarra bidali zituzten. Gero, gurera ekarri behar zituztenean Maelbeeken, metroan, beste leherketa bat egon zela jakin genuen: ez genekien zenbat iritsiko ziren eta atentatu gehiago espero ziren. Koordinazio zentroak erabaki zuen aireportuko zaurituak urrutik bidaltzea, baita Frantziara, hemengo ospitaleetan lekua egiteko.

◆ Nola bizi izan zenuten egoera hori?

Tentsio handiz, adrenalina askorekin. Bitartean, ahal ziren pazienteak egun horretan etxera bidaltzeko lanean jarri ginen, beste batzuei lekua egiteko geletan eta kirifanoetan. Alerta 4. mailara iristean, garraio publikoa gelditu egiten da eta bermatu behar da ospitaleko langileak ere lanera etortzea, eta hori lan handia da.

◆ Zein izan da pazienteen eta ospitaleko langileen erantzuna?

Hasieran shock egoera duzu, gero ez duzu sinisten... Baina elkartasuna ikaragarria izan da. Oporretan ziren askok deitu egin zuten haien beharrik ote zegoen. Jende askok odola emateko eskaintza egin zuen. Era berean sentimendu asko:

tristura, haserrea, ezin sinistea... Ospitaleko langileen jarrera eredugarria izan zela esan behar dut.

◆ Zein da giroa Bruselan?

Jende gehienak elkartasuna erakutsi du. Gorrotoak eta biolentziak ezin gaituztela menderatu uste dute gehienek. Batu egin behar dugu, hau zorakeria da eta! Atentatuak egin dituztenak hemen hazitakoak dira, eta jendeak galdetzen du hori egiteko zer pasatu zaien burutik horrenbeste gorroto izateko eta horrenbeste jenderi mina eragiteko.

◆ Auzune batzuetan biztanleak bazter-tuta daudelako izan daiteke?

Analisi bizkorregia eta sinplista da hori. Egia da auzo batzuk *ghetto* bihurtu direla, eta herrialde txiki bat birsortu dute han. Baina nire iritziz, ez dago diskriminazio handiagoo Euskadin egon daitekeena baino. Nik uste dut identitate arazo bat dela. Mutil hauek bigarren edo hirugarren belaunaldikoak dira. Marokoar jatorrikoak izanik, Marokora badoaz belgiarrak dira eta hemen Belgikan belgiarrak izan arren, marokorak dira. Hori neurte analisi pertsonala da.

Nagusien danborrada arratsaldez egingo dute aurten

Trinitate jaietako ekitaldi esanguratsuenetakoa da danborrada. Gai berezi bat aukeratu ohi dute, urtero aldatzen dutena, baina aurten gaia ez ezik beste aldaketa bat izango da: ordua. 23:30ean egin beharrean, 19:00etara aldatuko dute maiatzaren 21 honetan. Juan Carlos Arrieta antolatzailleak azaldu du eskariak jaso dituztela danborradako hainbat partaideren eta zenbait ikusleren partetik eta aproba egiteko aurten arratsaldean egingo dutela. “Bada orduarengatik nagusien danborrada sekula ikusi ez duenik eta aurten aukera izango duela pentsatzen dugu. Gainera, danborrada hasieran nahikoa jende egoten zen arren, amaieran gutxi. Denen gustua egitea zaila da”.

Orain arte danborrada aurretik egingen zuten afaria Sigman eta, aurten ostean, baita gero erromeria ere.

Entseguak eta kartela

Apirilaren 5ean egingo dute partaideentzat aurkezpena 21:00etan eta



gero entsegua izango da. Hortik aurrera, entseguak, martitzenetan, 21:30ean egingo dituzte maiatzaren 17koa salbu, bandarekin izango baita. Entsegu orokorra, berriz, maiatzaren 19an. Guztiak merkatu plazako atikoan.

Arropak hartzera maiatzaren 2an eta 4an pasatu beharko dira partaideak Danborradaren lokaletik (Pista beltzean) 19:00etatik 20:00etara. Parte hartzaile berriek, berriz, maiatzaren 3an eta 5ean arropa probatu beharko dute.

Danborrada iragartzeko kartel lehiaketa ere abian da. Kartelak honako mezua izan beharko du: *Elgoibarko danborrada 2016. Maiatzaren 21ean arratsaldeko 19:00etan*. 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, teknika librea izango da, baina lanak euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira. A-2an edo neurri proportzionalen.

Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 20ko 13:00ak baino lehen. Saria 300 eurokoa izango da.

Elgoibarko Udal Musika Bandaren doinuak Pagos de Leza upategian

Martxoaren 19an, San Jose Egunean, Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskaini zuen Arabako Errioxako Pagos de Leza upategian. Upel artean hotz egin arren, musikariak ez ziren kokildu eta haien doinuek berotu zuten giroa. Elgoibartik ez ezik inguruko herrietatik (Gardia, Eltziego, Bastida...) jendea gerturatu zen, baita Durango eta Gasteizkoak ere. Minbiziaren aurkako elkartearentzat dirua biltzeko ongintzazko kontzertua izan zen. Gasteizko erakundeko bi ordezkari Pagos de Leza upategiaren izenean 1.000 euroko txekoa jaso zuten, eta apropos prestatutako ardo botila asko saldu ziren. Pagos de Lezako eta elkarteko arduradunak pozik gelditu ziren kontzertuarekin, baita musikariak ere, eta jakina, kontzertu osteko bazkariarekin.



Zuhaitz Gurrutxaga eta Joseba Apaolazaren 'Kreditua' antzerkia ikusteko sarrerak salgai daude

Apirilaren 29an, 20:30ean, igoko dira Elgoibarko Herriko Antzokiko taula gainera Zuhaitz Gurrutxaga eta Joseba Apaolaza. Bertan Jordi Galceranen *Kreditua* lana antzeztuko dute.

Apaolazak banku sukurtsal bateko zuzendariaren rola jokatuko du, eta kreditu bat eskatuko dion bezeroa izango da, Zuhaitz Gurrutxaga. Zuzendariak kreditua ukatu egingo dio bezeroari, eta hortik abiatuko da istorioa. Gaiak serioa dirudien arren, komedia ukitua emango diote bi aktoreek elkarrizketa arin bezain biziekin. Eta suspensea, gertutasuna, gizatasuna... helaraziko diote ikusleari. Gaur egungo gai bat lantzen denez, gainera, jende askori hurbilekoa izango zaio.

Antzerkia hilaren amaieran izango bada ere, protagonista elgoibartarra izanik eta lehen jende asko erakarri duela ikusita, sarrerak jadanik salgai daudela jakinarazi dute. Prezioa 10 eurokoa da eta ikasle edo gazte txarteldunentzat 7 eurokoa.

Telebista saio berria

Zuhaitz Gurrutxaga antzerkian ikusteko aukera izan da aurrez, baina azken aldian telebistak egin du ezagunago. *Herri txiki*, *infernu handi* saioa aurkeztu du azken aldian, baina domekatik (apirilak 3) aurrera *Asko maite zaitut* programa gidatuko du, 22:00etan.



Umoretik arituko dira bi aktoreak. Arg.: M. Diaz de Rada

Ezusteko omenaldiak izango dira saio berriaren oinarria. Omenduak ez du jakingo omenaldia jasoko duenik, eta ingurukoak konplize izango dira, omendua toki batera eramateko, eta han omenduak gustuko duen zerbeit egiteko. Omenaldi hori ingurukoek egiten diote, pertsona horiei eskertzeko duten horregatik. Programa bakoitzean bi maitasun aitortza, bi istorio eskainiko dituzte. Zazpi atal grabatu dituzte, eta Elgoibarren ere izan dira omenaldi bat egiten, saioa noiz emango duten oraindik zehaztu ez badute ere.

Munlet bikote mendaroarraren kontzertua antolatu du Sinuosek apirilaren 8rako



Arg.: les deux pieds dans la fosse

Disko berria amaitzen ari bada ere, zuzenekoak ez ditu albora utzi Mendaroko Munlet bikoteak. Ina Iriondo *Herr Professor* eta Anita Perez *Lady fingers* Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan izango dira Sinuosen eskutik apirilaren 8an, 23:00etan. Kontzerturako sarrera hiru euro izango da. Kontzertua, kantu berriak aurkezteko eta zaharrak gogorarazteko baliatuko du elektro punk musika egiten duen bikoteak. "Kantu guztiak oso animatuak eta *kañeroak* izango dira", Munleten esanetan.

Zuzeneko emanaldiez gain, amaitzen ari dira diskoa. "Kristorena geratzen ari da dena *hitazoz* beterik eta nahiko originala eta anarkikoa gaur egunerako. Ea datorren hilabeterako edo hurrengorako prest dagoen".

Lehen aldiz Sotoan

Aurrez ez dute sekula kontzerturik eskaini Kultur Etxeko Sotoan, baina gogotsu etorriko dira. "Ez dugu sekula jo Sotoan, baina askotan egon gara kontzertuak entzuten eta demaseko leku polita da, gogoz gaude".


Anita eta Ina izango dira musikari eta kantari nagusiak, baina gonbidatu batzuek ere edukiko dituztela aurreratu dute, "oso berezia izango da".

Nora Kortaberria Munduko Txapelketarako sailkapena lortuta itzuli da Poloniatik

Errusiako Munduko Eskubaloi Txapelketa jokatzeko txartela eskuratu itzuli da Poloniatik junior mailako Espainiako Eskubaloi selekzioa. Jokatutako hiru partidak irabazi dituzte sailkatze fasean: Eslovakiaren aurka (29-17), Poloniaren aurka (20-23) eta Turkiaren aurka (29-20). Nora Kortaberria elgoibartarrak erdiko postuan jokatu ditu partida horiek eta bost gol sartu zituen orotara. Uztailaren 2tik 15era Errusian jokatu den Munduko Txapelketarako hilabete batzuk falta badira ere, Poloniara eraman dituen jokalaririk gehientsuenak eramateko asmoa duela aurreratu du Sagrario Santana hautatzaileak. Ondoko argazkian, Nora Kortaberria (eskuman), Ane Artola Aiala Zarautz taldeko kidearekin.



Gaizka Loiola txapeldunorde Espainiako Ezinduen Eski Txapelketan



Ezintasun fisiko bat dutenentzako mendiko eskiko Espainiako txapelketa jokatu zuten martxoaren 16tik 18ra bitartean Sierra Nevadako eski estazioan. Gaizka Loiola 14 urteko eskiatzaile elgoibartarrak zilarrezko dominak eskuratu zituen, 18 urtez azpiko mailan, slalomean eta erraldoian. Oraingoan ere Dani Gavalda gidariaren laguntza izan zuen. Eskiatzaileitsuak eta ikusmen urritasuna dutenak batzen dituen mailan hiru kategoria daude: itsuei dagokion B1 kategorian, eta ikusmen urritasuna dutenentzako B2 eta B3 kategoriak. Gaizka Loiola, txapelketako eskiatzaile gazteena izateaz gainera, itsu bakarra zen. Hortaz, aurkariak baino zailtasun handiagoak gainditu behar izan zituen.

Berdintasunaren alde egindako lanagatik saria jaso du Sanlok



Valonmano con V sariaren estreinako edizioan eskubaloiaren "beste alde hori, eskubaloiaren V aurpegia" erakusteko ahalegina egin duten pertsona, talde eta erakundeak saritu dituzte, eta Sanlo eskubaloi taldeak Berdintasunaren Saria jaso du. Saria eskuratzeko lau talde proposatuen artean sartu zuten lehenik, Madrilgo Balonmano Alcobendas, Gaztela Mantxako Caserio Ciudad Real eta Kataluniako Handbol Sant Joan Despi taldeekin batera. Antolatzaileek Internetez botoak emateko epea ireki zuten gero, eta jakinarazi dute Sanlok jaso ditu boto gehien.

Euskal Herriko Mendi Eskiko Binakako txapeldun

Andres de Regil eski zeharkaldiaren 41. edizioa jokatu zuten Europako Mendietan, joan den martxoaren 19an eta 20an. Lehen jardunaldian Euskal Herriko Mendi Eskiko Txapelketa ere jokoan izan zen, eta emaitza bikainak eskuratu zituzten parte hartu zuten elgoibartarrek. Arkaitz Iruretak eta Javi Dominguezek osatutako bikoteak irabazi zuten tituloa eta Eneko Aduriz elgoibartarra ere igo zen podiumera, hirugarren egin zuten eta Aitor Olarra zornotzarra sokalagun zuela.



Rioko Joko Paraolimpikoetan berriemaile lanak egingo ditu Nerea Gurrutxagak



Gazte Olympic Team lehiaketan saritu dute Nerea Gurrutxaga Zuatzubizkar gazte elgoibartarra, eta Rio de Janeiron (Brasil), irailaren 7tik 18ra egingo diren Joko Paraolimpikoetara joateko txartela irabazi du, beste zazpi gazte-ekin batera. Berriemaile lanak egingo dituzte, batez ere, Basque Team-eko kirolarien jarraipena eginez. Gurrutxagak 21 urte ditu eta Ikus-entzunezko Komunikazio gradua ikasten ari da Bilbon. "Kazetaritza atsegin dut, baita publizitatea ere, eta hau aukera ezin hobea da nire komunikatzaile jarduna hobetzeko", adierazi du.

Jon Garatek hirugarren postua lortu zuen Zestoako herri krosean

Zestoako Sanjosetako krosean 130 saltakari inguruk hartu zuten parte, tartean hainbat elgoibartarrek. 8,5 kilometroko ibilbidea osatu ostean, Jose Antonio Blanco ordiziarra izan zen azkarrena 28 minutu eta 45 segundoko denborarekin. Jon Garate elgoibartarra hirugarren postuan ailegatu zen helmugara, irabazlearengandik minutu eta erdira.



Emaitzak

FUTBOLA

Beti Gazte 1 – Haundi 2 (Oho. erreg.)
 Bergara 4 – Elgoibar 2 (1. erreg.)
 Ilintxa 4 – Elgoibar 1 (Jub.)
 Elgoibar 3 – Zumaiaiko 0 (A Kadeteak)
 Elgoibar 2 – Urki 2 (B kadeteak.)
 Elgoibar 3 – Lagun Onak 1 (Oho. inf.)
 Eibar 2 – Elgoibar 3 (Aleb errendimendu)
 Elgoibar 7 – Eibartarrak 6 (Aleb. parte hartzea)

ARETO FUTBOLA

Xota B 1 – Concepto Egile 3 (Nazional B)
 Aloña Mendi 3 – Debarrena 1 (Infantilak)

SASKIBALOIA

Alde Zaharra 60 – Viento Sur Elgoibar 54 (2. Probintzial Maila)

ESKUBALOIA

Alcorta Forging Group 22 – Trapagaran 28 (Senior giz.)
 Gabaz Elg 20 – Donibane Rueda
 Impermeabilizaciones 21 (Senior giz.)
 Euskal Ligako finala
 Zarautz 17 – Pneumax Elg. 17 (Kad. nesk.)
 Pneumax 26 – Pulpo 16 (Kad nesk.)
 Ereintza 23 – Pneumax 17 (Kad nesk.)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 3
 12:30 Concepto Egile – Kadrete (Naz. B)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 2
 11:00 Bankoa – Deca (kad. mut.)
 Domeka, 9
 11:00 Tecnifuelle Elg. – Aiala Zarautz (Jub nesk.)

Harmailak berrituko dituzte Olaizagan

Elgoibarko Udalak jakinarazi duenez, harmaila berriak jarriko dituzte Olaizaga kiroldegiko kantxa nagusian. 1998an jarritako harmailak kendu eta zazpi eserleku lerroz osatutako harmaila berriak jarriko dituzte. 500 ikuslerentzako lekua izango dute. Kontratuaren lizitazio-aurrekontua 95.000 eurokoa da (BEZ sartuta), eta lanak egiteko epea, berriz, bost astekoa. Udalak aurreratu-takoaren arabera, uztailaren 26an hasiko dituzte harmaila berria jartzeko lanak.



LANA.....
Eskaerak

Umeak eskolara eramateko eta etxera ekartzeko prest. 627 008 888

Elektrizitatean, iturgin eta pintura lanetan aritzeko prest. 10 urteko esperientzia. 632 873 111

Gauetz adinekoak zaintzen lan egiteko prest. 632 573 554

Asteburu gauetan adinekoak zaintzen lan egiteko prest. 631 974 374

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 212 497

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 153 274

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 631 534 125

Astean zehar lan egiteko prest: etxeak garbitzen, nagusiak paseatzen, haien jarraipena egiten... Diplomata. Etxeko asistentzia auxiliarra. Esperientzia. Euskalduna. Informeak. Elgoibartarra. 675 711 658

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko (etxeak, tabernak, portalak) prest nago. 631 790 555

Pertsona arduratsua adinekoak zaintzen interno modura edo baserriko lanetan aritzeko prest. 612 278 600

Adinekoak zaintzeko prest. Baita interna moduan ere. 602 193 095

Parketa jartzen dugu eta etxeak margotzen ditugu. 632 687 874

Adinekoak eta umeak zaintzen (interna edo orduka) eta garbiketetan (hotelak, bulegoak, jatetxeak, etxeak, tabernak... lan egiteko prest. Erreferentzia onak ditut. Espainiako nazionalitatea. 626 914 904

Pertsona arduratsua lan bila haurrak edo adinekoak zaintzeko, orduka edo interna. 632 871 550

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Papearak indarrean. 619 456 925

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Orduka (10:00-17:00). 632 256 679

Lanerako erabateko prestutasuna: adinekoak zaintzen, garbiketa lanetan. 656 866 255

Pertsona euskalduna prest adinekoak zaintzeko (interna ere). Erizain laguntzaile titulua daukat. 688 826 968
26 urteko pertsona lan bila. Zenbakizko kontrolerako titulua (tornua eta frestatzeko makina). 634 932 122

31 urteko pertsona zerbitzari, sukaldari laguntzaile, dendari, etxe laguntzaile edo umezain lan egiteko prest. 651 544 858

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko prest. Interna edo orduka. 632 776 905.

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko prest. Interna edo orduka. 628 738 472

Adinekoak zaintzeko prest, interna moduan ere. 620 619 287

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko prest. 680 808 125

Adinekoak zaintzen eta etxeak zein elkarteak garbitzen egingo nuke lan. 617 571 210

Etxez etxe garbiketa lanak egiteko prest. 637 102 725 edo 943 744 033

Adinekoak zaintzeko prest. Interna edo bestela orduka. 688 858 391

Adinekoak zaintzeko prest. Interna edo bestela orduka. 688 638 980

Eskaerak

Trokelgintzan esperientzia duen 40 urte inguruko pertsona baten bila gabiltza. 635 747 040

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Gutxienez bi logelakoa. 631 343 232

LOKALAK.....
Alokairua

Xagua taberna alokatzen da, San Franzisko kalean. 605 741 485

GARAJEAK.....
Salgai

Garajea salgai Arregitorre 12an. Itxia. 38 metro koadro. 663 928 169

Garaje itxia salgai Jausoron (Santa Klara bidean). Auto bat eta bestelakoak gordetzeko lekua ditu. 696 874 842

BESTELAKOAK.....

Gure aitaren, Gillermo Intxaustiren, omenaldiko argazki albuma norbaiti utzi nion eta ez dut bueltan jaso. Eskertuko nuke niri, Elena Intxaustiri, bueltatzea edo Azkue argazki dendan lagatzea.

1991an jaiotakoen bazkaria ekainaren 4an Belaustegin. Joan nahi dutenek 65€ sartu Kutxako kontu honetan apirilaren 29a baino lehen izen-abizenekin: ES31 2095 5036 50 9115859510. Autobusa egongo da. Animatu!

1980an jaiotakoen kintada apirilaren 16an. 12:00etan Tantakan ongi-etorri luntxa eta Sigman bazkaria. Sartu 42€ 3035 007 280070067518 zenbakian. Izena eman apirilaren 8a baino lehen. Anima zaitez!

Betaurrekoak galdu nituen San Roken, Oitzak inguruan, marxoaren 11 gauean. Graduatutakoak eta progresiboak dira. Saria emateko prest nago. 680 183 907



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Jakin nahi nuke, etxegile batek, komunitateko estatutuak egin ditzakeen, gero kontratu pribatu bidez etxebizitza erosiko duten jabeen parte-hartzerik gabe.

Zehaztu beharko litzateke noiz ulertzen den erosleari etxebizitza eman zaiola. Batzuen arabera, etxebizitza eman ez bada, eroslea ezin da jabetzat hartu, nahiz eta etxebizitza erosketaren kontratu pribatuaren dokumentua bera esku artean izan. Beraz, sustatzaileak eman eta aldatu ahal izango ditue estatutuak beste inoren baiezkorik jaso gabe ere.

Beste batzuen ustez, etxebizitza baten erosketa-kontratu pribatuaren dokumentua baldin badu, etxebizitza eman ez bazaio ere eroslea jabetzat hartu daiteke etxegilearen gehiegikerietatik babesteko. Hortaz, sustatzaileak ezingo ditu alde bakarreko estatutuak eman.

Batzuetan, salerosketa pribatuko kontratuetan zehazten da erosleek sustatzailea baimentzen dutela estatutuak egitera. Klausula hori baliozkoa izango da beti ere erosleen eskubideak kaltetzen ez baditu. Beraz, etxegileak dokumentu horiek eman ahal izango ditu higiezinaren errealitate fisikoa hartzen duenean eta ez dionean inongo jabetzari pribilegiarik jartzen.

AHOLKUA: Arau orokorren arabera sustatzaileak aldebakarreko estatutuak eman ahal izango ditu, beti ere, kontratu pribatuetan eskubide hori beregain hartu badu eta beretzako onurarik edo erosleentzako kalterik ez badakar.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Hurrengo zenbakirako, argazkiak martxoaren 30ean, eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Gure udaberriko larrosak, dagoeneko 4 urtetxo. Zorionak, **June** etxekoan partez.



Zorionak, **Elsa**, martxoaren 21ean 6 urte bete zenituelako.



Zorionak, **Oier**, martxoaren 31n 5 urte bete zenituelako. Etxeko guztien eta bereziki Unax anaiaren partez.



Zorionak, **txa-peldun**, martxoaren 25ean 9 urte bete zenituelako.



6 urte, **Oña**, zorionak! Asko maite zaitugu, neska bikaina zara!



Haritz, zapatutik oindiok zortzigarren urtebetetzea ospatzen zabiz? Etxekoan partez zorionak maittasun haundiz.



Zorionak, **Izaro**, gaur urtetxo bat bete duzulako. Etxekoan partez eta bereziki Danel, Oihan eta Jaren partez.



Zorionak zuri, zorionak beti... **Jon**, 23an 3 urte. Patxo potolo bat etxekoek, bereziki Markel, Jakes, Elene eta Paula.



Zorionak, **Eulali**, asteartean ospatuko dugu zure urtebetetzea. 4 urte potolo. Patxo mordo bat.



Zorionak, **Danel eta Sabin** Azpitarte Munin, ongi-etorri gure artera.



Zorionak, **Anuska** eta **Lukene**!!! 8 urte potolo bete dituzuelako!!! Muxu asko etxeko guztien partez.



Zorionak, **Ane eta Amaia**ri familia guztiaren partez!

Erretratu bakarrekogurra:

4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

ORBE

PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

atzak

taberna

San Roke 28. behea
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

www.uzuroptika.com

AUDIOLOGIA ZERBITZUAK
HERRITIK IRTEN GABE
AKUFENOEN TRATAMENDUA

HARTU TXANDA DOAN
San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

1 BARIXAKUA

17:00 Argazki ralya. Gaztelekuan.

2 ZAPATUA

20:00-00:00 Gaubela. Gaztelekuan.

3 DOMEKA

17:00 Zine foruma. Gaztelekuan.

4 ASTELEHENA

Atxutxiamaikea eta Ludotekaren Udaldiko eskaintzan izena emateko epearen hasiera.

5 MARTITZENA

10:00 Bilera, Enplegu Anezka programan parte hartu nahi duten gazte langabetuekin. Debegesako Bulegoetan (Azitain Industrialdea, 3. Eibar).

7 EGUENA

19:00 EH Bilduren bilera: eskaintza politikoa eta komunitatea; EAEko hauteskundeak eta lehendakariaga. Kultur Etxean.

8 BARIXAKUA

19:00 Hitzaldia: *Amnistiaren bidean, preso eta iheslariak etxera*. Iñigo Alkiturri eta Antton Lopez. Kultur Etxean.

23:00 Kontzertua: Munlet. Antolatzailea: Sinuose. Kultur Etxeko Sotoan.


Zinea (Herriko Antzokian)



'Deadpool'

1 Barixakua, 21:30in
3 Domeka, 19:00
4 Astelehena, 21:30

Zuz.: Tim Miller. Estatu Batuak, 2016. 106 min. Akzioa eta komedia. Aktoreak: Ryan Reynolds, Morena Baccarin, Ed Skrein, Gina Carano, Stefan Capicic, T.J. Miller. Indar berezietako langile ohi bat mertzenario bihurtuko da. Desitxuratuta eta minbiziarekin hainbat esperimendu egingo dituzte berarekin berehala sendatzeko boterea emanaz. Guztia ez da ondo irtengo, ordea, eta markak geldituko zaizkio. Deadpool bihurtu eta ia hil duen hori harrapatzea izango da bere helburua.



'Robots. La invasion'

4 Domeka, 16:30

Zuz.: Jon Wright. Erresuma Batua, 2016. 94 min. Zientzia fikzioa eta abentura. Aktoreak: Gillian Anderson, Ben Kingsley, Callan McAuliffe, Milo Parker. Galaxia urrun batetik etorritako robotek lurakonkistatu dute. Hondamenditik bizi-rik irten direnak euren etxeetan daude irtetea galerazten dieten inplante elektriko batzuekin. Gazte batzuk robot arriskutsuen mehatxupearan bizi dira. The Cube da, ordea, ur gainean dagoen robot nagusia.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerdik ostiratarak: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopiniologi zerbitzuak deialdegi.
Dieta ordua hartzeko.

Nabarmenduak

Bertsoak Eibarren

Bi bertso hitzordu antolatu dituzte Eibarren Arrate Kultur Elkartek eta Hankamotxak bertso eskolak datorren asterako. Apirilaren 6an tabernako saioa egingo dute Oihana Bartra, Asier Azpiroz eta Jokin Bergara bertsolariek Kultun, 19:00etan, Maddi Alberdi eta Maier Fernandez gai jartzaile direla. Apirilaren 8an, berriz, Sustrai Colina eta Agin Laburu arituko dira afalostean bertsotan Mikel Arrillagaren esanetara. Bertso Afaria 21:00etan hasiko da. Txartelak Kultun daude salgai, 24 euroan eta bazkide eta langabeentzat 20 euroan.



Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

1 Barixakua GARITAONANDIA

2 Zapatua ETXEBERRIA

3 Domeka ETXEBERRIA

4 Astelehena FERNANDEZ

5 Martitzena YUDEGO

6 Eguaztena ORUESAGASTI

7 Eguena BARRENETXEA

8 Barixakua IBAÑEZ

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara

ETXEBERRIA (Elgoibar)

Santa Ana, 1

Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)

Fermin Calbeton, 19

Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze)

Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626
Udalzaingoa.....	943 741 394
Udalaren arreta bulegoa.....	943 741 050
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700
Bake epaitegia.....	943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008
Hirigintza.....	943 744 384
Mankomunitatea.....	943 700 799
Debemen.....	943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414
Berdintasun saila.....	943 741 050
Euskara saila.....	943 744 366
Kultura saila.....	943 742 158
Udal liburutegia.....	943 743 525
Gazteria saila.....	943 531 319
Gazte informazio gunea.....	943 257 986
Ludoteka.....	943 748 883
Gazteleku.....	943 743 228
Enplegua-Merkataritza.....	943 741 050
Emugi.....	943 747 371
Kirolegia.....	943 744 415
Mintxeta.....	943 747 356
Musika eskola.....	943 742 145
Udal euskaltegia.....	943 742 731
AEK euskaltegia.....	607 601 423
KZgunea.....	943 023 640
Jubilatuena biltokia.....	943 740 526
San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Eguneko zentroa.....	943 744 565
Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Taxi geltokia.....	943 740 898
Larrialdiak.....	112
Gurutze gorria.....	943 743 864
Eusko tren.....	902 543 210
Pesa.....	902 101 210
Jokalari anonimoak.....	657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Correos - Posta.....	943 741 547

Mendaroko Udala.....	943 033 282
Liburutegia.....	943 033 291
Bake Epaitegia.....	943 033 289
Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Hurtzaindegia.....	943 755 219
Musika Eskola.....	943 244 275
Taxi.....	607 57 57 28
Ospitalea.....	943 032 800

A. Garate

Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua

angalmgarate@gmail.com

Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22 - Eibar
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850



Julen Ansola

Eider Iriondo



Kafearen zaporea bion ezpainenetan.

Kafe zaporezko muxuak.

Bion eskuak elkarturik, elkarrekin gauden adierazle.

Akorduan daukat hartu genuen lehen kafe hura: begirada ta irrifar lotsatiak.

Elkarren arimak biluztu ziren solasaldia.

Leihotik kanpo, bueltan dabiltzan auto eta pertsonen mugimenduek ez zuten lekurik gure begietan, elkarrekin egon eta elkarri kontatzeko genituen sekretu ta kontuak axola zitzaizkigun soilik.

Bi bihotz elkarturik.

Mundu zoro honetako bi ero elkarturik.

Urteak pasa ta bi begirada horien argia ez da itzali eta hemen elkartzen gara goizero, azken bi urte hauetan bezalaxe, egunero etortzen jarraituko dut.

Goizero, zure bila joango naiz, erresidentziatik aterako zaitut ta nirekin lehen zita hura bezalaxe kafetoxa hartzera gonbidatuko zaitut.

Zure gaitzak lehen zita hura dela pentsaraztera eramaten zaitu eta nik ere goizero biziko dut momentu hura.

Kafeak, goxoagoak direlako zure ondoan eta zure begi berdeen argitasunak pizturik jarraitzen duen bitartean hemen edukiko nauzulako, laztana.

“Kafe zaporezko muxuak”



Manuel Jauregui Arriola

Jubilatuen Biltokiko presidente ohia (1985-1993)

2016ko martxoaren 27an hil zen, 92 urte zituela.
Jubilatuen biltokiak bihotzez eskertzen du elkartearen alde egindako lana



Eduardo Fernandez Manterola

2016ko martxoaren 26an hil zen, 70 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Obdulia Fernandez Rodriguez

2016ko martxoaren 24an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

Rosario Zulaika Osa

2014eko apirilaren 3an hil zen. Haren oroimenez
II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 2,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren elizan.
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Maria Luisa San Martin

2015eko martxoaren 29an hil zen. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 2,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

**Urtebete da
gure artetik joan zinela
baina beti izango zaitugu
gure oroimenean eta bihotzean.**



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

AROSZTEGIAK

**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kunutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

**MAR**
AROSZTEGIA

Olaso Industriegunea, 17 beheka
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



**BIENA S.L.**
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Arosztegia Carpinteria
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albituri industriegunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

**iparelek S.L.**
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 358

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

**ELECTRICIDAD AZPELETA**
San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

**electricidad PEROSANZ**

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC beheka
Tel.: 943 202 298
Hemiko Enparantza 5
Tel.: 943 033 335
20600 EIBAR
20850 MENDARA

**egoluz**
ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 beheka - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.

**IGELTSERITZA**
CAMILLO ALVAREZ

Jardiñeta, 25 beheka
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA

**SANTANA**
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA ITURGINTZA**
Hemiko Enparantza, 10 beheka
MENDARA
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ongi** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522.

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

**FONTANERÍA Ibámar**
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheka B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

TELLABIDE

ITURGINTZA



Azpilgoeta 7 beheka - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

ZUBIZARRETA

instalazioak

Ubilarte plaza, 5 beheka
Elgoibar

943 740 789
650 586 144



PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzano, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
lendo@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
bfier@pagoagasa.com
ELGOIBAR

LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosof@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

**BIOK**
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida